

2014ko abenduaren 17an, UDALBATZAK egindako bilkura arruntaren AKTA. 5.

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko udalkideak agertu dira deneri deialdia luzatu zaien arren:

Lehendakaria:	Igor Iturain Iburguren
Zinegotziak :	M^a Jesus Arruabarrena Esnaola
	Asier Iburguren Iburguren
	Miren Idoia Iribar Beldarrain
	Arkaitz Iruretagoiena Lertxundi
	Nekane Arrizabalaga
	Amaia Guruzeta Aizpurua
	Aitzpea Elgarresta
	Aritz Arruti Mintegi

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aktaren onarpena

2014ko azaroaren 19an egin zen Udal Batzarraren akta onartua izan da.

2.-“Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 4 . espedientea .

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, kontuen batzorde bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, bozketa egin eta gero, aho batez, beraz, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

<u>Kapituluak</u>	<u>Izena</u>	<u>Gehikuntzak</u>
6	INBERTSIO ERREALAK	44.008,89
<u>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</u>		

FINANTZAKETA

<u>Kapituluak</u>	<u>Izena</u>	<u>Zenbatekoa</u>
8	DIRUZAINZA GERAKINA	44.008,89
GUZTIRA		

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

3.- 2015. urterako Aurrekontuak: hasierako onarpena

2015. urterako aurrekontuak azaldu ditu Alkateak . Aurrekontuen gastu partida nagusiak aipatu ditu, eskolaren anpliazioa, mantentzen diren zerbitzu sozialak , Santio poligonoko urbanizazioa, herri-bideen mantenimendua eta turismo plan estrategikoa.

Sarrerei dagokionez aipatzen du atal nagusia fondo forala izango dela; beste diru iturri garrantzitsuak eskola finantziatzeko Erein programatik jasoko den laguntza, 300.000koa, eta Eusko Jaurlaritzatik – Hezkuntza Saila- , 481.000koa esan du. Azkenik 1.456.0000 €tako beharra izango dela aurrekontuak kuadratzeko.

Aritz Arrutik Aurrekontuekiko kontrako azalpen luzea egin du, ondorengo kontsiderazioak eginik:

Kooperatibaren inguruan nola gauzatuko den operazioa ez dagoela argi; eraikinen trukaketa lotuta ote dagoen galdetzen du eta baita ere ea dendak zerbitzua ematen jarraituko ote duen; azkenik transparentzia gehiago eskatzen du . Elkanoko gaiaren inguruan esplikazio asko falta direla eta

bestalde, berriro ere, agertzen du euren posizioa, hau da, lehentasunik ez duen obra dela. Hondakinen inguruan urteroko eskaera berdina egitera behartuta daudela, Aiak zaborra gutxitzeko nahiko ekimen ez duelako bultzatzen. Azkenik, elizari eman nahi zaion dirulaguntza hitzarmenean baldintza gehiago jaso beharko litzatekeela.

Hori guztiagatik eta Aurrekontuek ez dutelako bat egiten herritarren beharrekin eta zuzena ez delako kreditua eskatzea Elkanoko inbertsioa aurreztu beharrean, hori guztiagatik aurka bozkatuko dutela azaltzen du.

Alkateak hitza hartu eta ondorengo azalpenak egin ditu:

Hasteko, oposizioari aurpegiatu dio proposamen zehatzik ez egitea eta kontsiderazio filosofikoetan jardutea. Kooperatibaren inguruan, 2 lokalen arteko permuta aurreikusten dela eta horregatik ez duela gain-kostorik izango herriarentzat. Urtarrilean herritarrei azalduko zaiela ekintza publiko batean operazio horren inguruko xehetasunak. Hondakinen inguruan, berriz, aitortzen du gutxitzearen aldera esfuertzo gehiago egin beharko litzatekeela. Udal aldizkariari dagokionez albisteak oposizioarekin adostearen alde azaldu da eta onartzen du inpartzialtasunez egitea azalpenak. Etxez-etxeko laguntzaren inguruan eta Diputazioak nahiz eta gutxitu laguntzak Udalak laguntza zabala emango duela Diputaziotik datozen murrizketak onartu gabe. Elkanoko obrak justifikatu ditu auzotarren eskaera direla esanaz eta bestalde dio Udalak ez duela prestamoari aurre egiteko zailtasunik. Elizari emango zaion dirulaguntzaren oinarri zimitarioaren erabilera publikoan kokatu behar dela eta ordaina izango duela eliza bisitagarri bihurtuko delako.

Idazkariak, 2/2012 lege Organikoak,- aurrekontuen egonkortasunaren ingurukoa denak-, administrazio publikoen aurrekontuei eskatzen dizkien eskakizunen berri eman eta gero azaldu du udal aurrekontuek

3 eskakizunetatik 1 betetzen duela, sostengarritasun finantzarioarena baina ez gastoaren erregela ezta era defizita ez izatearena (bere txostenean jasotzen dena)

Azaldu du, egoera horretan araudiaren arabera derrigorrezkoa litzatekeela Plan Ekonomiko Finantzarioa onartu behar izatea Diputazioak, azaroaren 19an onartutako finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako Toki Entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza

iraunkortasunaren alorreko instrukzioen arabera . Eta plan hori hilabeteko epe barruan onartu behar duela Udalbatzarrak.

Tramitazioari dagokionez Idazkariak azaltzen du hasierako onarpen hau jendaurrean jarriko dela 15 lanegunez. Eta ondoren erreklamazio ezean akordioa behin-betiko bihurtuko dela espreski beste akordiorik gabe. Eta azkenik Aurrekontuaren laburpena eta Lanpostu Zerrenda G.A.O.n argitaratuko direla (Udal Aurrekontuen 21/2003 Foru Araua).

Alkatearen proposamena botatu ,eta aldeko botuak 6 izan izanik (EAJko zinegotzienak) eta 3 aurkakoak (BILDU taldeko zinegotzienak), beraz, beharrezko gehiengoarekin, erabaki da:

1.- 2015.urterako Aurrekontu Bateratuari hasierako onarpena ematea, (eranskinean jasota dagoena) eta

2.- Jendaurrean jartzea. G.A.O n argitaratuz eta iragarki taulan ezarriz.

4.- Xanti Korta : Emakida administratiboa

Xanti Kortak, abenduaren 3an udal honi eskaera hau luzatu dio: **ate mogikor** baten bidez itxitura bat ezartzea Koxkor enpresa eta bere jabetzako lokalaren artean, kale publikoa dena itxiz. bere lokal komertzial parean dagoen lurzoru publikoaren erabilera pribatiboa izateko.

Bere ustez ezinbestekoa da jendaurreko salmenta egiten duen lokal komertzialak inguru ttukuna izatea eta ez orain bezala zikindua, alboan dagoen iturria dela eta bertan gertatzen diren egoerak hauek baitira: kotxeen garbiketak, ganaduaren eta txakurren pasalekua izatea, egonleku etb .

Poligonoko beste lur jabeak diren Carlos Alonso eta Joxin Etxaberen oniritzia jasotzen duen agiria aurkeztu du.

Jabari publiko izaera duen “kale sistema” (sistema local de viales) okupatu nahi du, 2006ko Errepartzelazioak kale sarea eta espaloi moduan jasotzen duen espazioa.

Jarri nahi den atearen irekiera erregimena ondorengoia izango da:

- Astelehenetik larunbata bitartean, lanordutan, irekita.
- Igandean, egun osoan, itxita.

Kontuan hartuta:

1.- Tokiko Entitateen Ondasun Erregelamendua (1372/1983 Errege Dekretua) 78.artikuluari emakida administratiboa aurreikusten duela udal ondasunen erabilpen pribatiboa eta ezohikoa ematen denean.

3.- Administrazio Publikoen Patrimonio Legeak (33/2003 Legea) bere 93 artikuluan baimentzen du **zuzeneko emakida**, lehiarik gabe, salbuespeneko egoerak ematen direnean

4.- Administrazio Publikoen Patrimonio Legeak (33/2003 Legea) 75 urteko epea dela gehiengo eman daitekeena.

5.- Erabaki hau hartzeko konpetentzia Udal Plenoarena dela emakida 4 urte baino gehiagokoa dela (22.2n art.)

30/2007 Legearen arabera eta 2007ko 141 Alkate Ebazpenaren bidez Gobernu Batzarrari eskuduntza hori pasa diola

Alkatearen proposamena bozkatu eta aho batez, beraz beharrezko gehiengo absolutoarekin

ERABAKI DA:

1.- Xanti Kortari, emakida administratibo bidez bere lokal komertzial parean dagoen lurzoru publikoaren erabilera pribatiboa egiteko aukera ematea 5 urterako.

2.- Jendaurrean jartzea espedientea 30 eguneko alegazio epean.

3.- Alkatea ahalmentzea dokumentu administratibo sinatzeko onuradunarekin.

5.- Parrokiarekin Hitzarmena

Alkateak, Parrokiaren jabetzakoak diren 2 elementoei, zimitarioa eta dorreak, erabilera publikoa dutela esanaz justifikatu du zimitarioan teiltuan egin diren eta dorrean egingo diren obrak. Dirulaguntza, 25.000€takoa izango da.

Aritz-ek dio aurkeztutako hitzarmen testoa hankamotz geratzen dela eta eskatzen du garbiago azaltzea hainbat aspektu: bisitak, emango diren elizaren inguruko azalpenak eta abar.

Alkatearen proposamena botatu eta eranskinean jasotzen den hitzarmena onartu egin da aldeko 6 boturekin (Bilduko 3 botu aurka izanik)

6.- “ Aiako Lardizabal eskola handitzea” egitasmoaren onarpena

Eusko Jaurlaritzako “Udalaguntza” programan aurkezteko egitasmoaren onarpena behar dela eta, Alkateak proposatzen du egitasmoa onartzea. Argitzen du exekuzio egitasmoak zimentazioa, estruktura eta fatxada jasotzen dituela. Guztira, BEZa barne, 1.112.841,97€-tako gastua aurreikusiz.

Egitasmoa Jorge Saiz Ulargui arkitektoak eginikoa da.

Proposamena bozkatu eta aho batez, 9 boturekin, erabaki da:

“Aiako Lardizabal eskolaren handitzea” exekuzio egitasmoaren lehenengo fasea onartzea “.

Eskaera eta galderak

Aritz Arrutik iragarki taulan azaldu diren aktak direla eta eskatu du aktak onartu eta gero jartzea iragarki taulan.

Bilera, 20,15tan bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezten, Idazkaria naizen honek akta hau jasotzen dut, Aian 2014ko abenduaren 18an.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEA